

Jon Landaburu hizkuntzalariaren bisita

2011/06/10

Jon Landaburu (bere anaia Gorka Landaburu kazetari zarauztarra bezala) Parisen jaio zen, EAJko goi politikari baten familian. Orain 40 urte iritsi zen Kolonbiara, eta bertan lan asko egin du Reichel Dolmatoff antropologoarekin batera. Gaur egun Kolonbiako Kultura Ministerioan egiten du lan, Aniztasun Etnolinguistikoa Egitasmoa koordinatzen.



Ostiral goizean bilera egin du Lanki eta Garabide elkarteetako ordezkariekin. Bildu da, halaber, Hego Ameriketako zenbait jenderekin, egiten ari dena Jatorrizko hizkuntza eta identitateen garapenerako aditu titulua.

Arratsaldean, berriz, mintegi bat zuzenduko du 15:30ean, N-2.7 ikasgelan: "Kolonbiako hizkuntzen eta kulturartekotasunaren trataera hango hezkuntza sisteman. Izan litezkeen lankidetzak erak".

